

Soin hezkuntza

Gero eta pertsona gehiago dira Gasteizen kirolarekin loturiko ikasketak egitea hautatzen dutenak

Alfredo Cobo

Irakaslea

«Soin hezkuntzari ez zaio behar adina garrantzirik ematen»

«Soin hezkuntzako helburuak landu eta lortzeko arazoak daude»



JOSEBA OLALDE

... Soin hezkuntzaren bitartez giza harremanak lantzen dira eta norbere burua ezagutzen ere laguntzen du.



Kirolarekin erlazionatutako ikasketak egitea euskaldun askok egiten duten aukera da. Gasteizen, euskaraz zein gaztelaniaz Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatu izateko aukera dago. Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea SHEE/IVEF 1986. urtean sortu zen, eta hasiera batean ikasketa unibertsitario bezala onartu ez bazuten ere, 1992. urteaz geroztik Unibertsitateko ikasketen barruan dago. Egun, 456 ikasle ari dira lizentziatura egiten, eta 32 doktoregoan.

Lau urtetan banatuta, lizentziaturak oinarritzko 22 ikasgai eta derrigorrezko 4 ditu, praktikakoak batzuk, teorikoak besteak. Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako ohiko eta ezagunak diren ikasgaiez gain (12 kirol mota), bestelako ikasgaiak ere lantzen dituzte: giza motrizitatearen oinarriak eta adierazpenak, ariketa fisikoen fisiologia, kirol entrenamenduaren teoria eta praktika, errendimenduaren psikologia, kirolaren soziologia, kirolaren teoria eta historia, jarduera fisikoa eta osasuna, ekimenak inguru naturalean, kirola eta aisialdia, eta kirol erakundeen egitura eta antolakuntza.

Lizentziatura nahiko berria izanik, azken urteetan ikasketak amaitu ondoren bestelako titulazio bi lortzeko aukera ematen die ikasleei ikastetxeak: 1999an, jarduera fisiko eta kirol jardueretan doktoregoa lortzeko ikasketak hasi ziren, eta 2000. urtetik aurrera, kirol kudeaketarako masterra egiteko aukera dago.

GURE IKASTETXEAREN IBILBIDEAK

**BATXILERGOAK
BACHILLERATOS**
(16-18 urte)

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK. CIENTÍFICO Y CIENCIAS DE LA SALUD.
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK. HUMANIDADES Y CIENCIAS SOCIALES.

**GOI MAILAKO FORMAKUNTZA ZIKLOAK (proiektuan)
CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR (en proyecto)**

- OSASUNGINTZA / SANIDAD
- DIAGNOSIRAKO IRUDIA. IMAGEN PARA EL DIAGNÓSTICO.
- GIZARTE ZERBITZUAK / SERVICIOS SOCIALES
- HAUR HEZKUNTZA. EDUCACION INFANTIL.

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
ENSEÑANZA SECUNDARIA OBLIGATORIA**
(12-16 urte)



BENTABERRIn eraikitzen ari den ikastetxe berria.
Nuevo centro en construcción en BENTABERRI.

ANTIGUA BHI

Heriz Ibilbidea 56 Tel : 943 210908
Faxa : 943 210364